



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2001eko abenduaren 29a

130 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, irriati emisoren emakiden adjudikazio-hartzaile izan ziren enpresei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Landa Garapenerako Programaren barrenean landa-turismoko jarduketak sartu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, 2000. urtean sortutako nekazaritza eta elikadura arloko partzuergo-kopuruei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, edateko uraren hornidura dela-eta arazoren bat izan duten herriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, azpiegiturei buruzko hiru urteko plana dela-eta Azagrako Udalak egindako eskaerak ukatu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, “bidezainen etxeak” izenekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, gizarte bazterkeriaren aurkako ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, suhiltzaile eta bidezainen etxebizitza hutsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, suhiltzaile eta bidezainen etxebizitza hutsak etorkinek erabiltzeko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, bi marokorrek pairatutako diskriminazio tratua dela-eta jarritako salaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, “Lan arriskuei buruzko informazio plana” kontusailaren betetze maileari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Izendapen-proposamena (16. or.).

F saila:
GALDERAK

Irrati emisoren emakiden adjudikazio-hartzaile izan ziren enpresei buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak irrati emisoren emakiden adjudikazio-hartzaile izan ziren enpresei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko ekainaren 20ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko uztailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Irrati emisoreen emakiden adjudikazio-hartzaile izan ziren enpresei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Zure departamentuak egiaztatua al dauka 1998an frekuentzia modulatu uhin metrikozko bi irrati emisoreetarako kontzesio-lehiaketan Iruñean esleipen-hartzaile suertatu ziren enpresen gaur egungo akziodun-multzoak eta kontzesioaren unekoak osaera-baldintza berak betetzen dituztela?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ofizialki jakin du kontzesio-hartzaile den Medios de Comunicación 21, SL enpresaren partaidetzen ehuneko 50 eskuz aldatu direla.

2.- Aldaketarik izan baldin bada, zein?

Ondokoak dira jakinarazi dizkiguten aldaketak, lehenbiziko galderan adierazi dugun bezala: Medios de Comunicación 21, SLko partaidetzen ehuneko 50, Ezequiel Barricart Subiza jaunarenak, eskuz aldatu dira; ehuneko 10 Natalia

Gómez Yanci andreak hartu ditu; ehuneko beste 10 bat Gabriel Gómez Yanci jaunak hartu ditu, eta ehuneko gainerako 30 Joaquín Gómez Santesteban jaunak hartu ditu.

3.- Aurreko kasuan, zer prozesuri jarraitu zaio Foru Komunitateko Administrazioan egindako izapidatzean?

Kontzesio-hartzaileak, 2000ko urriaren 30ean aurkezturiko eskabide batez, sozietateko partaidetzen aipatu esku-aldatzea jakinarazi zigun, azaroaren 10eko 336/1997 Foru Dekretuak ezarritako ondorioetarako; dekretu haren bitartez, Nafarroako Foru Komunitatean frekuentzia modulatu uhin metrikozko irrati emisoreetarako baimenak ematea arautu zen. Han ezarritakoari jarraituz, une hauetan akzioen aldaketa horretarako baimena ematea aztertzen ari da.

4.- Zer bitarteko erabiltzen ditu zure departamentuak enpresa horietako sozietate-kapitalean eta akziodunen multzoaren osaeran izandako balizko aldaketen berri izateko?

Administrazio kontzesio-egileak akzioen aldaketak baimendu behar baititu, kontzesio-hartzaileek Administrazioari jakinarazi behar dizkiote gertatzen diren aldaketa guztiak. Beraz, Administrazioak informazio hori dauka kontzesio-hartzaileak dauzkan betebeharrengatik, azaroaren 10eko 336/1997 Foru Dekretuko 9. artikuluan ezarritakoaren ondorioz eta Telekomunikazioen Antolamenduari buruzko abenduaren 18ko 31/1987 Legeko seigarren xedapen gehigarriko 1.f) idatzatiaren ondorioz. Bestalde, Estatuko Administrazioak behar bezala informatzen dio eta iritzia eskatzen dio Foru Komunitateko Administrazioari Foru Komunitatearen eremuan frekuentzia modulatu uhin metrikozko irrati emisoreetarako baimenetako kontzesio-hartzaileen artean gertatzen diren akzio-aldaketa guztiei buruz, baldin eta kontzesio-hartzaile horiek nazio-lurraldean ere kontzesiorik izan eta, beraz, Estatuko Administrazioa-

ren eskumenen mende badaude, hain zuzen ere kapital sozialaren aldaketa horiek baimen ditzan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 21ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:

José Ignacio Palacios Zuasti

Nafarroako Gobernuak Landa Garapenerako Programaren barrenean landa-turismoko jarduketak sartu izanari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Nafarroako Gobernuak Landa Garapenerako Programaren barrenean landa-turismoko jarduketak sartu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko uztailaren 2ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko uztailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Nafarroako

Gobernuak Landa Garapenerako Programaren barrenean landa-turismoko jarduketak sartu izanari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Landa Garapenerako Programa prestatzean, "Nekazaritza-ustiategien eraginkortasuna hobetzea" izeneko 1. ardatzaren barrenean sartu ziren landa-turismorako laguntzak.

Europako Batasunak horiek kanpoan uztera behartu zuen, bere aburuz inbertsio-mota hori ezin delako nekazaritza-ekoizpena hobetzeko xedez ustiategietara bideraturiko laguntzen artean sailkatu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko uztailaren 6an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

2000. urtean sortutako nekazaritza eta elikadura arloko partzuergo-kopuruei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak 2000. urtean sortutako nekazaritza eta elikadura arloko partzuergo-kopuruei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko uztailaren 2ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko uztailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Jose M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak 2000. urtean sortutako nekazaritza eta elikadura arloko partzuergo-kopuruei buruzko galdera egin du. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

2000 urtean ECOVIN ardo partzuergoa sortu zen.

Urte berean, Nafarroako 8 enpresaren eskaintza bateratzea sustatu zen, eskaintza-kanpaina bateratua egin baitzen Bartzelonako 25 delikatesen-dendatan.

Guk dakigula, aurten ez da partzuergorik sortu, baina aztertzen ari gara beste partzuergo batzuekin batera, Naparbideak partzuergoarekin esate baterako, zer ekintza egin ote daitekeen marka bakarra sortzeko Donejakue Bide osorako, kontserbak merkaturatzeko partzuergo baten bidez eta ECOVINi babesna emanez.

Departamentuaren ustez, lan ildo hori egokia da, zeren partzuergo bat sortzeak prozesu motela dakar berekin, ikuspuntu juridiko, administratibo eta komertzialetik akordioak eta konfiantza eskatzen dituen, eta beraz ezin da arin jokatu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko uztailaren 6an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria, Ignacio Javier Martínez Alfaro

Edateko uraren hornidura dela-eta arazoren bat izan duten herriei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aranz Echarri jaunak edateko uraren hornidura dela-eta arazoren bat izan duten herriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko ekainaren 25eko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko uztailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aranz Echarri jaunak galdera egin du edateko uraren hornidura dela-eta arazoren bat izan duten herriei buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Lehenengo eta behin komeni da esatea esku-ragarri dagoen informazioa toki entitateek departamentu honi inbertsio planetan sartzeko egiten dizkioten eskaeretan oinarritzen dela batez ere. Nafarroako Gobernuak aipatu entitateekiko lanki-

detza ekonomikorako tresna gisa ezartzen ditu plan horiek, helburu nagusi batekin: udalen eskumen diren eta nahitaez eman beharrekoak diren zerbitzuak bermatzea, hala nola ur hornidura.

José M^a Aranaz Echarri jaunak egindako galdera hain generikoa denez, mugak ezarri beharra dago; hartara, oinarri hartuko ditugu azken bi urteak –hau da, 2000tik honako epea– eta herri jakin batzuk, hain zuzen ere inbertsio planetan “Presio handiko ur hornidura” deitutakoari zor zaizkion arazoak dituztenak (ur-bilketatik hasi eta biltontzi erregulatzaileetan ura biltegitratzeraino).

Esandakoa gorabehera, ondokoak dira arazoak dituzten herriak eta horrenbestez departamentu honi inbertsio planetan sartzeko eskatu diotenak :

- 1. eremua: Donamaria, Igantzi, Arantza, Etxalar.
- 2. eremua: Betelu, Azkarate (Araitz).
- 3. eremua: Oronoz-Mugairi (Baztan).
- 4. eremua: Ziganda eta Beratsain (Atetz); Baraibar (Larraun); Gendulain (Odieta); Ultzama ibarra; Ertzilla partzuergoa.
- 5. eremua: Sakanako Mankomunitatea; Irañeta.
- 6. eremua: Iruñerriko Mankomunitatea; Beraskoain; Larunbe, Aginaga eta Zia (Itza); Idotzin (Ibargoiti); Goñiko Udala; Zuriain, Idoi, Inbuluzketa eta Leranotz (Esteribar); Leazkue (Anue); Ziriza, Etxarri eta Bidaurreta; Markalain, Nabaz, Beltzuntze eta Larraiotz (Txulapain).
- 7. eremua: Esnotz, Erro, Orondritz eta Zilbeti (Erro); Hiriberri Aezkoa; Abaurregaina eta Abaurrepea.
- 8. eremua: Itzalle eta Uskartze (Galoze); Ustaize (Nabaskoze) eta Arratozko Mankomunitatea.
- 9. eremua: Uztarroze.
- 10. eremua: Agoitz-Longida-Urraulbeiti eta Irunberri Borondatzeko Batasuna; Usun, Domeño eta Biotzari (Erromantzatua); Zabaltzeta (Untziti); San Vicente (Urraulbeiti); Elkoatz (Urraulgoiti).
- 11. eremua: Zangozako Eskualdeko Mankomunitatea; San Isidro del Pinar (Kaseda).
- 12. eremua: Jurrmendiko Mankomunitatea; Meano-Lapoblación; Aramendia (Allin); Torralba del Río; Kontzejua; Metautengo Kontzejua; Barindao eta Zudaire (Ameskoabarren); Maraño; Armañanzas.

– 13. eremua: Izarbeibarko Mankomunitatea (Gesalatz ibarra); Erriezu (Deierri).

– 14. eremua: Santsoain, Bezkitz, Benegorri eta Amunarizketa (Leotz); Orisoain.

– 15. eremua: Aragoiren Ibarreko Mankomunitatea; Villafranca; Milagro; Faltzes eta Azkoien.

– 16. eremua: Moncayoko Mankomunitatea; Cadreita.

Ondorengo herriek, aldiz, ur horniduran murrizketak pairatzen dituzten toki entitateentzako laguntzen programan sartzeko eskatu dute:

– 6. eremua: Ilundain eta Lakidain (Arangueren); Ziritza; Etxarri; Iurre, Osteritz, Ustxi, Ilurdotz eta Leranotz (Esteribar); Izko (Ibargoiti).

– 7. eremua: Arike.

– 10. eremua: Izagaondoa; Lerrutz; Iheltz eta Mendiorotz (Lizoain); San Vicente eta Aldunate (Urraulbeiti).

– 11. eremua: Ageza (Moriones); Lerga; Zare.

– 12. eremua: Lezaun; Torralba del Río; Asarta (Mendaza); Abartzua; Lizarra; Nazar; Aras; Gastiain (Lana).

– 13. eremua: Genbe eta Biguria (Gesalatz).

Galderaren bigarren atala dela-eta –uren kalitateak, departamentuan ditugun datuen arabera, uraren batez besteko kalitatea balekoa dela esan daiteke.

Halere, ur arazoak dituzten herrien zerrendan, zeina gorago eman baitugu, batzuek arazo berezia dute kalitatearekin, batez ere nitrato maila onargarritik goiti daudelako. Hona:

– 6. eremua: Bidaurreta.

– 12. eremua: Metauten, Meano-Lapoblación.

– 15. eremua: Faltzes eta Azkoien; Villafranca.

Osasun Publikoaren Institutuak horri buruzko informazio zehatzagoa du, gizakiek kontsumitzeko uraren kalitateari buruzko aldian aldiko kontrolak egiteko ardura duen erakundea hura baita.

Galderaren hirugarren parteari erantzunez, eta txosten honen hasieran azaldutakoa oinarri hartuta –alegia, neurri horiek toki entitateek hartu beharrekoak direla, horretarako eskumena duten aldeetik–, Toki Administrazioako Batzordeak ondokoak egin ditu, egindako eskaerei, ur hornidurari buruzko plan zuzentzailean jasotzen diren irtenbideei eta aurrekontuan erabilgarri dagoenari jarraikiz:

– Eranskinean aipatzen diren herrietako ur hornidurarako inbertsioak (plan zuzentzaileak)

sartu dira toki azpiegiturei buruzko 2000ko planean. Guztira 1.300 milioi pezeta egiten dute.

– Eranskin berean aipatzen diren obrak ere sartu dira behin-behineko 2001etik 2003ra bitarteko planean. Guztira 3.609 milioi pezeta egiten dute.

– Egin beharrekoak egin dira orobat Jurramediko Mankomunitateko ipar-ekialdea hornitzeko proiektua Europako funtsen bidez finantzatzeko programaren barruan sartzeko. Guztira 2.173 milioi pezeta egiten dute.

– Egindako ekintza batzuk uraren kalitatearen hobekuntzarekin lotura zuzena dute. Hona aipagarrienak:

- Edateko ura tratatzeko estazioak: Etxalar, Izarbeibarko Mankomunitatea, Moncayoko Mankomunitatea, Sakanako Mankomunitatea eta Agoitz-Longida-Urraulbeiti eta Irunberri Borondatezko Batasuna.

- Bidaurreta, Iruñerriko Mankomunitateko sareetatik ura hartuta konpondua.

- Metauten, Jurramediko Mankomunitateko sareetatik ura hartuta konpondua, lehen aipatu dugun ipar-ekialdea hornitzeko proiektuan jasotakoari jarraikiz.

- Faltzes eta Azkoien, berrikitan egin den putzu bateko hartunearekin konpondua.

- Meano-Lapoblación. Kasu horretan, azterzen ari gara hornidura putzu berri batetik egiteko

aukera; horrela eginez gero, presakoa denez, indarra duen hirurteko planean sartuko litzateke.

- Villafranca. Tratamendurako araztegia handitzeko obrak hasteko baimena eman da.

Inbertsio horien osagarri, ur murrizketak hainbat arinen arintzearen, departamentu honek abian du 1991tik hona herritarrentzako ur horniduran murrizketak pairatzen dituzten toki entitateentzako laguntza programa. 2000 urtean Nafarroako Gobernuak 9.903.803 pezetako ekarpena egin zuen horren arioren eta, halatan, programa horri atxikitzea eskatu zuten herri guztiei erantzun zien. Gobernuak, 2001etik 2003ra bitarteko plan indardunaren baitan, urteko bakoitzeko 19.333.000 pezetako inbertsioa egitea onetsia du.

Azkenik, aipatu beharra dago etorkizuneko inbertsio planetan sartuko direla –presa eta aurrekontuko kontsignazioa zein diren– plan zuzentzailean aurreikusitako irtenbideekin bat etorrita toki entitateek egin eta hirurteko plan indarduneari sartu ezin izan diren eskaera guztiak, bai eta departamentuak berak proposatutako bestelako ekintzak ere.

Iruñean, 2001eko uztailaren 16an

Toki Administrazioako kontseilaria: Rafael Gurra Indurain

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Azpiegiturei buruzko hiru urteko plana dela-eta Azagrako Udalak egindako eskaerak ukatu izanari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak azpiegiturei buruzko hiru urteko plana dela-eta Azagrako Udalak egindako eskaerak ukatu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko uztailaren 12ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko uztailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aranaz Echarri jaunak galdera egin du azpiegiturei buruzko hiru urteko plana dela-eta Azagrako Udalak egindako eskaerei buruz. Hona Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. galdera: Sartu al zen hasierako balioespenean Azagran araztegi bat izatea?

Erantzuna: Bai. Hondakin-uren arazketari buruzko Azpiegitura Defizit Orokorraren (alegia, ADOren) adierazlean kontuan hartu zen egoera onean dagoen hondakin-uretarako araztegi bat (B) izatea.

2. galdera: Zein izan zen –zehaztu atal guztiak– Azagrako Udalak aurkeztutako obrei eman zitzaizen hasierako puntuazioa?

Erantzuna:

– Azpiegitura Defizit Orokorraren (ADOren) adierazleak:

Presio handiko hornidura

IRA = 0,00

IAA1 = B

IAA2 = B

IAA3 = B

IAA4 = B

IAA5 = B

Tokiko sareak

IRL1 = 0,00

IRL2 = B

IRL3 = B

IRL4 = 0,00

IRL5 = R

Hondakin-urak araztea

IDP = B

Hondakinak

IRU1 = S

IRU2 = B

Elektrifikazioa

IE1 = 0,00

IE2 = B

Argiztapena

IAP1 = 0,10

IAP2 = M

Zoladura

IPAV1 = 0,00

IPAV2 = R

Udaletxeak

IEDM1 = 0,53

IEDM2 = R

B= egoera ona (0,00)
R= egoera ertaina (0,50)
M= egoera txarra (1,00)
S= bilketa-zerbitzua badago.

– Aurretik azaldutako adierazleekin, honako ADO hau lortzen da: 1,5722.

– Hasierako fasean Azagrako Udalarari esleituriko puntuazioak:

	INBERTSIOA	ADI	ADO	IE	KTB	HLK
LA BARCA BIDEAREN ZOLADURA	67.926					
D1 (IPARRALDEKO ZATIA), D3, D5 ETA D7: KALEETAKO SAREAK BERRITZEA.	18.847	1	1,5722	10	0	1,577222
D1 (HEGOALDEKO ZATIA), D2, D4, D6 ETA D8: KALEETAKO SAREAK BERRITZEA.	21.253	7	1,5722	10	0	6,197222
ARGIZTAPEN PUBLIKOA BERRITZEA (1. FASEA)	40.500	10	1,5722	10	0	8,507222
KALEETAKO ZOLADURA: D1 (IPARRALDEKO ZATIA), D3, D5 ETA D7 (SAREAK).	129.001	1	1,5722	7	0	1,382222
KALEETAKO ZOLADURA: D1 (HEGOALDEKO ZATIA), D2, D4, D6 ETA D8 (SAREAK).	145.470	7	1,5722	7	0	6,002222
UDAL-EGOITZAK EGOKITZEA.	65.740	10	1,5722	9	0	8,442222
LA BARCARAKO LINEA ELEKTRIKOA.	11.973					
GUZTIRA	500.710					

(La Barca bidearen zoladura eta La Barcarako linea elektrikoa Toki Programazioko inbertsioei egokitzen ez zaizkien eskaerak dira).

3. galdera: Zein izan zen –zehaztu atal guztiak– emandako behin-behineko puntuazioa?

Erantzuna:

– Alegazio-fasean ADOaren adierazleak berri-kusi ondoren, jarraian zerrendatzen diren hauek lortzen dira:

Presio handiko hornidura

IRA = 0,00

IAA1 = B

IAA2 = B

IAA3 = B

IAA4 = B

IAA5 = B

Tokiko sareak

IRL1 = 0,00

IRL2 = B

IRL3 = B

IRL4 = 0,00

IRL5 = B

Hondakin-urak araztea

IDP = M

Hondakinak

IRU1 = S

IRU2 = B

Elektrifikazioa

IE1 = 0,00

IE2 = B

Argiztapena

IAP1 = 0,10

IAP2 = R

Zoladura

IPAV1 = 0,00

IPAV2 = B

Udaletxeak

IEDM1 = 0,53

IEDM2 = R

– Atal horiekin, honako ADO hau lortzen da: 2,0167.

– Azagrako Udalaren eskakizunei behin-behinekoz kontuan hartzeko fasean esleituriko puntuazioa:

	INVERSION	DII	DIG	RI	VAF	CSP
LA BARCA BIDEAREN ZOLADURA	67.926					
D1 (IPARRALDEKO ZATIA), D3, D5 ETA D7: KALEETAKO SAREAK BERRITZEA.	18.847	1	2,0167	10	0	1,621667
D1 (HEGOALDEKO ZATIA), D2, D4, D6 ETA D8: KALEETAKO SAREAK BERRITZEA.	21.253	7	2,0167	10	0	6,241667
ARGIZTAPEN PUBLIKOA BERRITZEA (1. FASEA)	40.500	10	2,0167	10	0	8,551667
KALEETAKO ZOLADURA: D1 (IPARRALDEKO ZATIA), D3, D5 ETA D7 (SAREAK).	129.001	1	2,0167	7	0	1,426667
KALEETAKO ZOLADURA: D1 (HEGOALDEKO ZATIA), D2, D4, D6 ETA D8 (SAREAK).	145.470	7	2,0167	7	0	6,046667
UDAL-EGOITZAK EGOKITZEA.	65.740	10	2,0167	9	0	8,486667
LA BARCARAKO LINEA ELEKTRIKOA.	11.973					
GUZTIRA	500.710					

Iruñean, 2001eko uztailaren 16an

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael
Gurrea Induráin

“Bidezainen etxeak” izenekoei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak “bidezainen etxeak” izenekoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko ekainaren 25eko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Batasuna Parlamentuko Taldeak bidezainen etxeak izenekoei buruzko galdera egin du. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Ondokoa da, 2000-03-20ko inbentarioaren arabera, aipatu etxeen kopurua eta kokalekua:

Iruña	27 etxebizitza
Irurtzun	18
Altsasu	18
Agoitz	19
Nabaskoze	28
Zubiri	18
Erronkari	18

Mugairi	18
Lizarra	36
Los Arcos	19
Tafalla	37
Zangoza	21
Tutera	38

Etxebizitza horien okupazio maila aldatu egiten da, eta orain bezala etorkizunean ere Nafarroako ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legeak ezarritakoari jarraikiz kudeatuko ditu Gobernuak. Dena den, horien erabileraren ardura atxikirik dauden departamentuena da; alegia, bidezainen etxeen ardura Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuarena da eta suhiltzaileen etxeena, berriz, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuarena.

Jabari publikoko ondasunak diren aldetik duten lege-atxikipena kenduta, ez da jasota ageri ondasun horien gaineko inongo konpromiso pertsonal edo norbanakorik.

Etxebizitza horiek toki entitateei lagatzeko aukera dela-eta, Gobernuak Nafarroako ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legeak ezarritakoa beteko du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 21ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Gizarte bazterkeriaren aurkako ekintzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak gizarte bazterkeriaren aurkako ekintzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko uztailaren 12ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du gizarte bazterkeriaren aurkako ekintzei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

1. 2001eko Aurrekontu Orokorretako zenbat diru gastatu da pobreziaren aurka borrokatzeko?

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zenbait aurrekontu lerro ditu berariaz pobreziaren aurka borrokatzeko, gizarte bazterkeriaren aurkako planaren baitan; guztira, 2.028.041.104 pezeta egiten dute.

924002 93300 4809 313400: Irauteko baliabiderik ez duten Nafarroako familientzako laguntzak

924002 93300 4809 313700: Gizarteratzeko proiektuak eta neurriak

924002 93300 4809 313702: Gizarte bazterkeriaren aurkako plana.

924002 93300 4810 313400: Elkarrekin eta entitateentzako dirulaguntzak

924002 93300 4810 313700: Elkarrekin funtzionamendurako sinaturiko itunak

924002 93300 4810 313702: Laguntza juridiko eta penitentiarioko zerbitzua

924002 93300 4810 313703: Gutxiengo etnikoak sustatzeko dirulaguntzak

924002 93300 4810 313704: Etxebizitzarako eta gizarteratzerako laguntzak

924002 93300 4810 313705 (**): Etorkinak gizarteratzen laguntzeko programak

924002 93300 4810 313706 (**): Etorkinei buruzko plan integrala

Horiek guztiak batera hartuta, 2001eko uztailaren 18an egiten duten gastua aurreikusitako guztiaren % 73 da.

Bestalde, Departamentuak "Baztertuak laguntzeko elkarreentzako dirulaguntzak" izeneko lerro bat dauka, bazterturiko pertsonak gizarteratzeko gizarte ekimeneko entitateetako azpiegiturak diruz laguntzeko dena, eta beste bat "Haur eta gazteentzako zentroetako obra eta ekipamenduetarako dirulaguntzak". Biek batera 150.000.000 pezeta egiten dute eta haien % 100 hitzartua dago. Biak bazterkeriazko egoeran dauden pertsonekin eta gizarte arazorik eduki eta baztertuta geratzeko arriskua duten gazteekin lan egiteko ekipamenduak finantzatzeko erabili dira.

Gizarte bazterkeriaren aurkako planeko jarraipen batzordeak ezarritako neurriak betetzeari buruzko adierazleak jasotzeko sistemak aurreikusten du plan osoari buruzko datu ekonomikoak departamentuen bitartez biltzea. Adierazle horiek urtero bilduko dira; hori dela eta, 2001. urteari buruzkoak oraindik ere ez dauzkagu eskura.

2 eta 3. Zer ekintza abiarazi dira helburu horrekin legegintzaldi osoan? Gobernuaren ustez, bere jarduna bat al dator Parlamentuak onetsitako gizarte bazterkeriaren aurkako planarekin?

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren 190/99 Foru Aginduz sorturiko Gizarte Bazterkeriaren aurkako Planerako jarraipen batzordeak, 1999ko azaroaren 17an eratu zenak, planean jasotako neurrien betetzeari buruzko adierazleak biltzeko sistema bat ezarri zuen.

1999ko eta 2000ko adierazleak erantsi ditugu (azken horietan bukaerako zuzenketa batzuk egiteko daude). Planean jasotako neurri nagusien berri ematen dute adierazle horiek.

Departamentu honek aitortu behar du halako atzerapen bat gertatu dela gizarte laguntasunaren gaineko kapituluaren gizarte zerbitzuen arloko oinarriko laguntzan gizarteratzerako eta haurrei eta familiei laguntza emateko ekipo espezializatuak abian jartzeari buruz jasotako neurriak aplikatzerakoan.

Atzerapen hori ekipo horien osaketa, eginkizunak eta, batez ere, gizarte zerbitzuen sistemaz izanen duten kokapena ongi definitzeko beharri zor zaio; definizio hori Gizarte zerbitzuen oinarriko laguntza berrantolatzearen planaren zirriborroa da. Aurtengo azken hiruhilekoan abian jarriko da plan horren esperientzia pilotu bat, lehen ekipoak –hasiera batean, Iruñean eta gero Lizarran– sortzea aurreikusten duena.

Halaber, Gobernuak zailtasun handiak izan ditu araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke neurriak betetzeko, eraikitzeke lurra garestia delako eta haren eskaria handitu delako; horrek halako inhibizio bat sortu du ekimen pribatuarengan era horretako etxebizitzak sustatzeko garaietan. Gizarte bazterkeriaren aurka planeko jarraipen batzordeak –haren partaide dira Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuko zuzendari nagusia eta Etxebizitza Departamentuko ordezkari bat– zailtasun horren berri eman du, garrantzi handia baitu gizarte bazterkeriaren aurka egiteko, Nafarroako Gobernuari eta Foru Parlamentuari igorritako komunikazio batean.

Gainerako neurriak ehuneko handi batean bete dira, bereziki dirusarreraren bermeari eta arlo sozial eta laboralean sartzeari dagokienez.

4. Zer-nolako parte hartzea du departamentuak arlo horretan lan egiten duten elkarteetarako dagoen?

Aurreko erantzunean adierazi dugun bezala, Gizarte bazterkeriaren aurkako planeko jarraipen batzordea 1999ko azaroaren 17an eratu zen, planean bertan eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren 190/99 Foru Aginduan ezarritakoa betez. Foru Aginduan batzordearen honako eginkizunak jasotzen dira:

- Nafarroan Gizarte Bazterkeriaren aurkako planaren ezarpena gainbegiratu eta koordinatzea.

- Ezarritako neurrien eraginkortasuna eta eraginkortasuna ebaluatzea.

- Behar diren neurri zuzentzaileak proposatzea.

- Nafarroan Gizarte bazterkeriaren aurkako plana hobeki garatzeko behar diren gainerakoak.

Aipatu Foru Agindua batzordearen osaketa ere jasotzen du; hartan, ukituriko departamentuetako eta Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioaren ordezkariak gainera, Elizbarrutiko Cáritaseko, Nafarroako Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Sareko eta UGT eta CCOO sindikatuak –Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez– ordezkariak ere badaude.

Batzordea lau aldiz bildu da: 1999ko azaroan, 2000ko apirilean eta azaroan eta 2001eko ekainean. Deialdia lehendakariaren ekimenez edo batzordeko kideen heren batek eskatuta egiten da. Lehen deialdia baino lehen baizik ez da gertatu Nafarroako Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Sarearen batzordea eratzeke eskari bat. Gainerakoetan, deialdia Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak egin du.

Hau da lankidetzarako esparru formalena, baina horrek ez du esan nahi Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak entitate horiekin ohiko harremanik edo harreman zuzenagorik ez duenik, dirulaguntzen kudeaketa, laguntzak eta bestelako lankidetzak moduak direla eta.

Halaber, Departamentuko zuzendaritzak aintzat hartzen ditu entitate horiek plangintza jarduek guztietan. Etorkinen gizarteratzeari buruzko planaren aurreproiektua berriki prestatu dugunean, ondokoei egin zaie kontsulta: enpresaburuen elkarteak, erakunde sindikalak, ANAFE-CITE, Gurutze Gorria, Cáritas, SOS Arrazakeria, UGTren Gida Zentroa, Nafarroako Zentro Argentinarra, Kolonbiako Elkarteak, AISENA eta AENA. Halaber, Gizarte zailtasunak dauzkaten haur eta nerabeei arreta egiteko planeko zirriborroa gizarte bazterkeria jasateko arriskua duten haurrekin lan egiten duten zenbait elkarteri eman diegu, langile eta lanbide elkarte batzuei ematez gainera.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 10ean.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

(Oharra: Aipatu eranskinak foru parlamentarien eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Suhiltzaile eta bidezainen etxebizitza hutsei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak suhiltzaile eta bidezainen etxebizitza hutsei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko ekainaren 20ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Batzarre-Askotariko Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak suhiltzaile eta bidezainen etxebizitza hutsei buruzko galdera egin zuen, eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hura bideratzea erabaki zuen 2001eko ekainaren 11n. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuari atxikitako etxebizitzak suhiltzaileen parkeko eraikinean bertan egon ohi dira. Kasu bakar batean, ordea, horietako bik suhiltzaileen parkeari datzekion

inmueble bat osatzen dute. Eraikinak Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoari laga zaizkio, hark erabil ditzan.

Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren etxebizitzak beti –baita gaur egun ere– esleitu zaizkie bertako funtzionarioei.

Gaur egun etxebizitza bakar bat dago hutsik, Tuteran hain zuzen ere.

Oro har, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoak –lehenago Nafarroako Gobernuak bezala– etxebizitza horiek berritzeko asmoa du, erabilera hori izateari utzi eta gaur egun suhiltzaileen parkeek dituzten leku beharrianetara egokitzeko. Nolanahi ere, dauden tokian daudelako eta suhiltzaileen parkeko sailak handitzeko premiarik ez dagoelako lehengo erabilerari eutsiz gero, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuari atxikitako langileei soilik esleitzen ahal zaizkie etxebizitza horiek.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 27an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurra Indurain

Suhiltzaile eta bidezainen etxebizitza hutsak etorkinek erabiltzeko aukerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak suhiltzaile eta bidezainen etxebizitza hutsak etorkinek erabiltzeko aukerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko ekainaren 20ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Batzarre-Askotariko Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Milagros Rubio Salva-

tierra andreak suhiltzaile eta bidezainen etxebizitza hutsak etorkinek erabiltzeko aukerari buruzko galdera egin du. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Galderan aipatzen diren ondasunak jabari publikokoak dira eta, horrenbestez, ez dago horiek horretarako lagatzerik.

Halere, ondasun horiek desafektatu eta ondoren lagatzea zilegi izan daiteke baldin eta beharrezkotzat jotzen bada Gobernuak orain dela gutxi onetsi duen inmigrazio planean aurreikusitako neurrien artean sartzea.

Iruñean, 2001eko ekainaren 29an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Bi marokoarrek pairatutako diskriminazio tratua dela-eta jarritako salaketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak bi marokoarrek pairatutako diskriminazio tratua dela-eta jarritako salaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko ekainaren 25ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Batzarre-Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galdera egin du bi marokoarrek pairatutako diskriminazio tratua dela-eta jarritako salaketari buruz. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2001eko ekainaren 11n onartu zuen galdera hori tramitatzea. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Ikuskizun Publiko eta Josteta Jardueri buruzko martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legeko 10.2.d) artikulua aitortzen du jendeak eskubidea duela bazterkeriarik gabe hartua izateko, salbu eta arrazoi objektibo eta publikoki ezarritakoengatik, enpresak ezagutzera emandako arau orokorre jarraituz.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak zehapen prozedurak hasi ditu publiko orokorrari zabalduko ikuskizun eta josteta jardueren lokaletan jendea sartzeko ez uzteari buruz salaketarik jaso duen guztietan, baldin eta debeku hori inolako justifikaziorik gabe edo objektibotasun eta publizitaterik gabeko argudioekin gauzatu bada, hain zuzen ere Ikuskizun Publiko eta Josteta Jardueri buruzko martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen arabera haiek nahitaezkoak direlako.

Dena den, galderako testuan bazterkeriazko tratuari buruzko salaketa publikoak behin eta berriz egiten direla esaten bada ere, etorkinei lokal publiko batzuetan sarrera debekatzen bai-

tzaie, esan behar da Nafarroan ikuskizun eta josteta lokaletan bazterkeriazko jokaera izateagatik aurkeztutako salaketak ez dira ez ugari eta ez, oro har, etorkinak ukitzen dituztenak.

Betiere, galderaren testuan horri buruzko zerbait iradokitzen baita, era horretako zehapen espedienteak tramitatzeke zailtasunak salatutako bazterkeriari buruzko frogan gertatzen direnak baizik ez dira izaten; izan ere, balizko bazterkeriarik jasan duten subjektuek egitateak gertatu diren garaian egin dutenaren arabera, egindako salaketa ia guztien bukaera artxibatzea, largespena edo establezimenduetako titularrei egitate gehigarri batzuegatik zehapena ezartzea izan da, sekula ere arrazoi larririk izan gabe (esate baterako, erreklamazio orriak falta izatea, 23.10 artikulua, edo jendea hartzeari buruz ezarritako arauak ez betetzea, 23.17 artikulua).

Ikuskizun publikoen lokal batera sartzan ez uzteagatik izandako bazterkeriazko jokaeraren ondorioz tramitatzen diren espedienteak batez beste urtean bi izaten dira.

Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak aurrerantzean ere ikuskizun edo josteta jardueretarako lokaletan edozein arrazoiengatik gertatzen diren bazterkeriazko jokaeren aurka egiten, Turismoari buruzko azaroaren 17ko 14/1997 Foru Legea nahiz Ikuskizun Publiko eta Josteta Jarduerari buruzko martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea zorrozki aplikatuz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 27an.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“Lan arriskuei buruzko informazio plana” kontusailaren betetze maileri buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak “Lan arriskuei buruzko informazio plana” kontusailaren betetze maileri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko uztailaren 12ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Osasun kontseilariaren erantzuna

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak “Lan arriskuei buruzko informazio plana” kontusailaren betetze maileri buruzko galdera egin zuen 2001eko ekainaren 26an. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Gezurra da galderaren aitzinsolasean esaten dena, hots, etengabe igotzen direla Nafarroan laneko istripuen tasak. Aitzitik, 2001ean jaisten ari dira. Laneko Higiene eta Segurtasunerako Institu-

tu Nazionalaren datuen arabera –Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko Batzorde Nazionalak Madrilan 2001ako uztailaren 5ean egin zuen bilkuran emanak–, aurtengo lehen bost hilabeteetan iazko lehen bost hilabeteekiko % 2.9 jaitsi da Nafarroan tasa hori.

Aurrekontuko lau kontusailen betetze mailari buruz –alde batera utzita horietako hiru, Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Departamentuari dagozkionak–, esan beharra dago Nafarroako Lan Osasunaren Institutuari dagokion kontusaila 512001-53000-2269-413903 (Lan arriskuei buruzko informazio plana) kontusaila dela, hasiera batez 12.000.000 pezeta daukana. Horietatik 832.207 pezeta gastatu dira, eta gainontzekoa ekitaldi honetako bigarren seihilekoan betetzea aurreikusi da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko uztailaren 12an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak "Lan arriskuei buruzko informazio plana" kontusailaren betetze mailari buruzko galdera egin du. Hona Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna:

2. "Laneko arriskuei aurrea hartzeko delegatu sektorialentzako laguntza programak" izeneko kontusaila 2001eko Nafarroako Aurrekontuetan Parlamentuko zuzenketa baten bitartez sartu zen.

Kontuan harturik berariazko organo horren kontzeptua, hain zuzen ere Laneko arriskuen prebentzioko sektore-ordezkararena, Laneko arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 35.4 artikulua araberako hitzarmen kolektiboan edo Langileen Estatutuko 83. artikuluko 3. idatz-zatiak aipatzen dituen akordioetan sortu eta adostu behar da. Laguntza horietarako deialdia egin aurretik, urte hasieran sindikatu eta enpresaburuaren elkarrekin garrantzitsuenekin hitz egin genuen, horri buruz zeukaten iritzia jakiteko, zergatik eta sindikatuak eta enpresaburuaren elkarrekin baitira figura hori negoziatzeko kolektiboaren bitartez bere egin eta ere arautu dezaketenak.

Egindako iradokizunei jarraituz, martxoaren 1ean, aipatu entitateei laguntza horietarako deialdia egiteko testuaren proposamen bat igorri

zitzaien, hari buruzko iritzia eman zezaten; gaur arte, ordea, ez dugu inongo iradokizunik jaso.

2001eko abuztuaren 9an, Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak foru agindu bat sinatu zuen aipatu dirulaguntzarako deialdia eginez; deialdi hori NAOn argitaratu zain gaude. Argitaratzen den egunetik 30 egun naturaleko epea ematen da eskariak aurkezteko, baldin eta sinaturiko hitzarmen edo akordiorik baldin badago laneko arriskuen prebentzioko sektore-ordezkararen figura jaso duen hitzarmen edo akordiorik. Horrenbestez, oraingoan, xede horretarako kontusaila hitzartu gabe dago.

3. "Laneko arriskuei aurrea hartzeko programa" izeneko kontusailak 115.100.000 pezeta dauzka. Hona haren betetze maila: laguntzak eman zaizkie eskatutako baldintza guztiak betetzen zituzten eskari guztiei, hain zuzen ere 108.474.746 pezeta; urte bukaerarako emandako kopuruak gastatu izateari buruzko ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

4. "Laneko arriskuei aurrea hartzeko inbertsioak" izeneko kontusailak 117.000.000 pezeta dauzka. Gaur arte 21 eskari baizik ez da aurkeztu. Eskari horiek, gehienez ere, 45.600.000 pezeta jaso dezakete. Betiere, eskari gehiago aurkez daitezke urte bukaerara arte.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 27an.

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa

Izendapen-proposamena

2001eko abuztuaren 3ko 94 zk.ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2001eko uztailaren 2ko 74 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Oposizio-lehiaketa amaiturik, eta deialdiaren 7. oinarrian ezarritakoari jarraikiz, hona gainditu duten izangaien zerrenda, bakoitzak lortu duen puntuazioa ere adierazirik:

María Mercedes Seviné Ruiz andrea	92,45 puntu
María Dolores Susana Sáenz de Navarrete García andrea	91 “
Yolanda Núñez Rosón andrea	79,03 “

Esperanza González Senosiáin andrea	77,42 “
Esther Martínez Acedo andrea	69,83 “
Fernando Mauleón Antonio jauna	68,43 “
María Nieves Huarte Iturri andrea	61,79 “

Horrenbestez, eta lortutako puntuazioak aintzat harturik, epaimahaiak izendapen-proposamena egin du María Mercedes Seviné Ruiz andrearen alde.

Argitara ematen da aipatutako 7. oinarrian xedatuarekin bat.

Iruñean, 2001eko abenduaren 13an

Epaimahaiko idazkaria: Carlota Aranaz

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.300 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---